

Berrigara


BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 13a / 508. zenbakia



SAN 2002
MARTINAK

JARDUN: BERTSO ESKOLAK, URRITIK AURRERA/5 • CD AURKEZPENA: SAN PEDROKO ORGANOKO MUSIKA/12

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA


**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak




943 76 00 00
Koldo Eleizalde 8
BERGARA

ATREBENTZIAEZPADA / Ze moduz holako opor luzien ostian eskolara bueltia?



ASIER DALAMA
16 urte

Ondo, baiña pereza pixka bat be emon dosta, batez be, kurtsua errepetidu bihar dotelako. Baiña bueno, beste alde batetik, berriro lagunak ikustia-eta oso ondo dago.



JON GONZALEZ
16 urte

Ondo; gaiñera, tokau jaten irakasliak oso onak die. Suertia euki dot, historia eta holako ikasgai zaillak emoten daben irakasle onak tokau jat, ez die oso gogorrak.




JESUS NAVAS
16 urte

Hasiera astuna egitten da, baiña martxia hartu eta gero, ba, bueno, suabiagoa egitten da, gauza danekin pasatzen dan moduan. Gaiñera, eskolara bueltau egin bihar danez, ba...



AINHOA AIASTUI
9 urte

Oso ondo. Ni pozik bueltau naiz. Gaiñera, lehenengo aste hau flojo gabiz. Eskulanak eta holakuak egin dittugu. Datorren astetik aurrera gogortu egingo die gauzak.



MAIALEN ZANGITU
8 urte

Ondo, baiña pena pixka bat emon dosta eskolara bueltatziak. Ez neukan hasteko gogo haundirik, oporretan hobeto egoten da. Baiña lagunak berriro ikustia ondo dago.



PELLO ALFARO
9 urte

Neu pozik hasi naiz, baiña oporretan be gustora ibilli naiz. Eskolan eskulanak eta holakuak egitten dittugu, eta hori asko gustatzen jat. Eta lagunekin berriro jolastia be bai.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZIAK ERABILTZeko DAUDE Eguazten eguerdian, 13:15 aldera ateratako argazkia duzue hau, Barrenkaletik Artekalera kantoian. Ikus daitekeen bezala, hainbat zabor-poltsa daude lurrian, eta metro erdira lau edukiontzi daude; lauretatik, hiru, gainera, erdi hutsik. Ohitura falta edo utzikeria ote da zaborra lurrean uztea? Edukiontzira botatzea ez da hainbeste kostatzen. /M.B

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6-7

KIROLAK /10

KULTURA /12

San Martinak asteburuan

Gaur hasi eta datorren astelehenera bitartean, San Martinak izango dira. Ekitaldi ugari egongo da.

Futbol taldeak, martxan

Nesken futbol taldeak eta gazte taldeak zapatuan hasiko dute denboraldia, Bergaran.

Dantza Suelto Txapelketa

Moises Azpiazu zenaren oroimenez, Dantza Suelto Txapelketa gaur, 19:30ean, Udala Pilotalekuan.

ASTEKO DATUA

6.600

REALA-GIRONDINS PARTIDUAN BATUTAKO DIRUA

Joan den egubakoitzean BKEren urteurrenaren barruan Realak eta Girondins taldeak jokaturako partidura jende ugari hurbildu zen. Leihatilan 6.600 euro inguru batu zituzten.

BESTE EKESANA

“ Bergaran arrisku-tsuak izan daitezkeen 15 txakur zenbatu ditugu. Hala ere, azken zerrenda

egitea falta zaigu. Zehaztasun horiek egin ostean txakurren jabeengana joko dugu eta eskatuko diegu udaletxetik igarotzeko. Kontua da, aurrerantzean baimen berezia beharko dutela txakurra kalera ateratzeko, eta horretarako baldintza zorrotzak bete beharko dituztela. (...)

Arrisku-tsuak izan daitezkeen txakurrekin orain arte ez dugu inolako arazorik izan. Dena dela, aurrerantzean txakurren jabeek kontu handia izan beharko dute eta kalera irteteko txakurra lotu egin beharko dute. Gainera, txakurrak muturrekoa eraman beharko du.

ALFONSO ALONSO
GOITB/02-09-011

BERAIEKDIÑO / Ane Miren Etxeberria



Berriz ere errutinara

Udako oporrak guztioi amaitu zaizkigun momentu honetan, horren beharrezkoak ditugun errutinara itzultzen ari gara. Batzuk hobeto, beste batzuk okerrago, baina berriz uztailan, kasu batzutan eta bestetan abuztu hasieran utzitako arazo eta buruhauste berdinetara itzuli gara. Ikasleok iraileko azterketak nola gaudituz pentsatzen dugun bitartean, politikariek, alderdi bat nola ilegalizatu eta ondorioz euskaldun askoren ideien zapalketa eta oinarritzko eskubide demokratikoen apurtze eta txikitze prozesu hori nola indartu pentsatzen ari dira.

Uda guztian aktualitatea izan den gaia, Garzon jaunaren eskutik hasitako ilegalizazio prozesua izan da. Konkretuki azken asteetan gogortu dena, egoitzen itxiera eta ideia guztien errespetuaren alde eta faxismoaren aurka antolatutako manifestazio eta ondoren gertatutako atxiloketekin.

Bergarara oraindik ez dira heldu, baina laster izango dira hemen egoitza ixteko, horregatik ahal den eta lan eta oztopo gehienak jarri beharko dira eskubide eta ideia guztiak errespetarazteko.

Argi dago eta denok dakigu, uda hau nahiko nahasia izan dela eta ondorioz irensteko zaila, baina denok eman behar dugu zerbait normalitatez itzuli eta azken finean, errutinara bueltatzeko beharrezkoa baitugu gizakiok lasai bizi eta gure bizitzarekin aurrera

“Argi dago, eta denok dakigu uda hau nahiko nahasia eta ondorioz irensteko zaila izan dela”

jarraitzeko.

Baina oraindik ere, San Martin jaiak ditugu azken juerga onak botatzeko. Gainera aurten, aste bukaera osoa izango dugu lagunekin egon eta jaietaz gozatzeko normalitate horretara guztiz itzuli baino lehen.

Horregatik, gomendio on bat luzatzen dizuet: ondo pasau, asko ligau eta dirua laga tabernetan, hori be egin bihar da eta!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 13**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- ZAPATUA, 14**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- DOMEKA, 15**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 16**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- MARTITZENA, 17**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 18**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- EGUENA, 19**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak:
20:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 11:30,
13:00. | Angiozar
Domekak:
11:30.
Moja
Zaharrak
Lanegunak: 9:00.
Zapatuak: 11:00. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Ubera
Domekak:
10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |
- URTE-MEZAK**
Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

- 1948AN JAIOTAKOAK**
1948an jaiotakoen afaria, hilaren 28an, Txuringon. Joan-etorria egiteko autobusa egongo da. Izenematea, Euskadiko Kutxan (41 euro).
- LUDOTEKA, MARTXAN**
Xipizaro ludoteka irailaren 17tik aurrera izango da zabalik. Izenematea eta argibideak: 943 76 23 76 edo 696 15 99 24.
- KOFRAIXETAKO ZOKETA**
Kofraixetan zoketatutako Mallorkara bidaia 5.477 zorbakiari tokatu zaio.

- HHI-EPA**
Matrikulazio epea zabalik, irailaren 20ra arte, goizez eta arratsaldez, Irizar jauregian. Argibideak, 943 76 44 52 telefonoan.
- ODOL ATERATZEA 25EAN**
Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, hurrengo odol ateratzea hilaren 25ean egingo dute, 18:30ean, Seminarioan, errelebuka lanean ari direnek odola emateko aukera izateko.

- SAN JOXEPEREN IRTEERA**
Irailaren 24an Pasai Donibanera joateko irteera antolatu du San Joxepe. Izenematea, irailaren 17ra arte zabalik. Argibideak: 943 76 30 09.

JARDUNEN AGENDA

- TRIKITI ESKOLA, ABIAN**
Jardunen trikiti eskolak urriaren leian emango dio hasiera ikasturteari. Soinu eskolak martitzenetan, eguaztenetan eta zapatuetan izango dira eta pandero eskolak astelehenetan eta eguenetan. Izenematea irail erdialdera arte egongo da zabalik. Argibide gehiago 943 76 36 61 zorbakian.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarretetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Remigio Muxikari omenaldia Iruñeko Orfeoia


Lehen mendeurrenean, Iruñeko Orfeoia Remigio Muxika bere lehen zuzendaria omendu zuen 1992ko irailaren 13an. Remigio Muxika (Bergara, 1866) Iruñeko Orfeoiko sortzailetako bat izan zen, 1892an, eta orfeoi horretan aritu zen 1948. urtera arte. 1958an hil zen, Iruñean.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

“Kolorga”

Kolore gabea, kolorea galdu duena. *-Kolorgia, kolore zurixa ero kanbixautako koloria; babak eta, urak pasautakuan, koloria kanbixautakuan, kolorgak. Personia be bai, gaixuak eta: “kolorgatuta dao”.*



GORKA ORTEGA

ASTEKO FILMAK


‘DRAGONFLY’

ZUZENDARIA: TOM SHADYAC. AKTOREAK: KEVIN COSTNER, JOE MORTON.

HARIA. Joe Darrow medikuari emaztea hil eta gero gauza arraroak gertatzen hasiko zaizkio. Emaztea berarekin hitz egin nahian dabilela hasiko da pentsatzen Darrow.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30an; zapatuan, 19:30ean, 22:30ean; domekan, 19:30ean, astelehenean 19:30ean eta 22:15ean eta martitzenean 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



‘STUART LITTLE 2’

ZUZENDARIA: ROB MINKOFF. AKTOREAK: GEENA DAVIS, HUGH LAURIE, JONATHAN LIPNICKI.

HARIA. Lehen zatiaren arrakastari eutsi nahirik, hemen datozkigu Stuart Little sagutoaren abentura dibertigarriak. Little familia beste bi kide daude: Martha eta Margalo txori bihurria. Stuart-ek abentura paregabea izango du lagun berriekin...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Zapatuan, domekan eta astelehenean, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxe: 943 76 23 52 bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

EUSKARA/ Ume eta nagusiendako bertso-eskolak izango dira. Ainhoa Agirreazaldegia eta Enaitz Alustiza dira irakasleak

Martitzenean, hilak 17, irekiko du Jardunek bertso-eskoletan izena emateko epea

MONIKA BELASTEGI

Datorren astean zabalduko du Jardunek ume eta nagusiendako bertso-eskoletan izena emateko epea. Eskolak astean behin izango dira, doan, eta bertsozaletasuna berpiztea eta bertsozaleen transmisioa ziurtatzea dute helburu bertso-eskolek.

Bergaran bertsozaletasunari eta oro har bertsolariari bultzada bat eman behar zaiola sumatu du Jardun euskara elkarteak. Elkar-terean iritiz hamarkada askotan barrena gure herriak bertsolari-izarekin izan duen lotura gero eta ahulago dago, eta gure kulturaren oinarri izan diren ahozko literaturaren, kanta zaharren, kanturako joeraren eta bertsolari-itzaren transmisioa kolokan ikusten dituzte.

Hori guztia dela eta, galtzen ari diren ohitura eta zaletasun horiek Bergaran berpizteko bi bertso-eskola martxan jarri dituzte: umeen eta helduen bertso-eskolak.

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Martitzenean, irailak 17, zabaldu eta urriaren 2ra arte egongo da zabalik izena emateko epea. Horretarako Jardunen egoitzara joan behar da -kultura etxe-ko sotoa- edo 943 760819 eta 943 763161 telefonoetara deitu, honako ordutegian: asteleheneetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Eskolak urriaren 21eko astean hasiko dira. Hala ere, aurreko astean, hau da, 14tik 18rako astean izena eman duten guztiekin bilera bat egingo dute egutegi eta ordutegi egokiak zehazteko eta taldeak egiteko.

Irakasleak, Ainhoa Agirreazaldegia eta Enaitz Alustiza bertsolariak izango dira; biak eskarmentu handiko bergararrak.

HELDUEN BERTSO-ESKOLA

Irakasleek esanetan, helduen bertso-eskolaren helburu nagusia da izena ematen duten kideak bat-bateko bertso jardunean trebatzea. Horretarako, eta taldearen sarrera mailaren arabera, bertsoan bat-batean egiteko ariketak jarriko zaizkie eskura ikasleei. Horrez gain, bertsolari-itzarekin osotasunean ulertzeko eta barneratzeko beharrezkoak diren beste hainbat gai ere jorratuko dituzte: bertsolari-itzaren zer den, lehengo eta gaur egungo bertsolari-itzaren, historian zeharko bertsolariak...

Ainhoa eta Enaitzek esan dutenez, astean behin izango dira eskolak, aldiro bi orduz, eta goian aipatutako guztia eskola orduetan egingo duten arren, eskolaz kanpoko hainbat ekintza ere egingo dituzte: inguruko bertso-esko-



Enaitz Alustiza eta Ainhoa Agirreazaldegia bergararrak arduratuko dira umeen eta nagusien bertso-eskolez.

Irailaren 17an irekiko dute umeen eta nagusien bertso-eskoletan izena emateko epea

Bertsozaleen transmisioa ziurtatzea eta bertsozaletasuna piztea da helburua

Bertso-eskolak zein gainerako ekintzak Arrizuri jauregian eskainiko ditu Jardunek urritik

lekin trukaketak, kultura ekintzetan parte hartu... Azken batean "bertsolari-itzaren komunikatzeko tresna izanik, ezin baita lau paretan artean geratu".

UMEEN BERTSO-ESKOLA


Umeen bertso-eskolek ere astean behingo maiztasuna izango dute, eta iraupena ordu eta erdikoa izango da. Funtsean helduekin

landu diren arloak landuko dira, baina era jostagarriagoan, eta umeen mailara egokituta. Horrez gain, eskolaz kanpoko ekintzak ere burutuko dituzte.

Jardun Arrizuri jauregira urritik aurrera

Jardun euskara elkarteak Arrizuri jauregia erabiltzeko baimena eman dio Udalak. Jardunek urtean barrena antolatzen dituen ekintzetarako erabiliko du Arrizuri. Bulegoak kultura etxe-ko sotoan jarraituko du. Arrizuri erabiltzeko baimena urtebetekoa da, luzatzeko aukerarekin.

Oporren ondoren izandako bileretan Arrizuri jauregira joatea adostu dute Udaleko kultura arduradunekin. Han, erabilera anitzeko gelak izango dituzte: behe solairuaren ezkerrean dauden sei gela, hain justu ere. Horrez gain, jauregia inguratzen duen parkea erabiltzeko aukera ere izango dute. Hori horrela, Jardunek burutzen dituen ekintza guztiak -asteburu- eta aisi-aldia, ikastaroak, mahai-inguruak...-, Arrizuri jauregian eskainiko dituzte ikasturte berrian, hau da, urritik aurrera. Horretarako, Jardunek erabiliko dituen gelak txukundu egingo ditu Udalak.



Ekintza guztiak Arrizuri egongo ditu Jardunek.

M.B.

LABUR

Simon Arrietan hasiko da gaur Jolasleku Ibiltaria

Ikasturte berriarekin, Jardunek martxan jarri du Jolasleku Ibiltaria. 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta helburua da, euskal kantu eta jolasen bidez, euskaraz jolasteko baliabide egokiak eskaintzea eta ahozko-tasuna lantzea. Horretarako, umeak biltzen diren tokietara joango da Jolasleku Ibiltaria. Lau gunetara, 17:00etatik 19:00etara: gaur, irailak 13, Simon Arrietara; irailaren 27an, Labegarietara; urriaren 11n, Poligonora; eta urriaren 25ean, Espoloiara.

Hilaren 17an zabalik yoga eta brikolaje izena emateko epea

Datorren martitzenean, hilak 17an, irekiko dute Udaleko Osasun, Enplegu eta Gizarte Arazoetarako sailak antolatzen dituen yoga eta brikolaje ikastarotako izena emateko epea. Matrikula irailaren 20ra bitartean egongo da zabalik eta izena HHIren egoitzan eman behar da 10:00etatik 13:00etara. Prezioa 24 eurokoa da. Ikastaroak lau hila-betekoak izango dira, irailaren 30etik urtarrilaren 31ra arte. Yogak honako ordutegia izango du: astelehen eta eguaztenetan, 09:00-10:30, 15:00-16:30 eta 17:00-18:30. Martitzen eta eguenetan, berriz, 16:00-17:30, 18:00-19:30 eta 20:00-21:30. Brikolaje ikastaroak honako ordutegia izango du: martitzen eta egunetan 09:00-10:30 eta 10:30-12:00.

Matrikula epean izenemate guztiak onartuko dira eta taldean sar daitezkeenak baino jende gehiago apuntatuz gero, Udalak zozketa egingo du. Kanpoan geratzen direnei dirua bueltatuko zaie eta lehentasuna izango dute otsailan hasiko diren ikastaro berrietan.

Asteburuan manifestazioak Bilbon eta Bergaran

Bihar, zapatua, Gora Euskal Herria lelopean, Bilbon, 17:30ean, Aita Donostiatic abiatuta egingo den manifestazio isilerako deialdia egin dute. Antolatutako autobusean joateko Arrano, Pol-Pol eta Kortazarren eman daiteke izena.

Bestalde, irailaren 15ean, domeka, manifestazioa izango da Bergaran. Euskal Herria aurrera lelopeko manifestazio hori San Martin plazatik abiatuko da, 19:00etan.

SAN MARTIN JAIK / Egubakoitzean hasi eta astelehenera bitartean hainbat ekitaldi izango dira jaiez ondo gozatzeko

San Martinak 2002

MONIKA BELASTEGI

Gaur hasi eta astelehena bitartean San Martin jaietan murgilduko gara. Ekitaldi ugari izango da: musika, antzerkia, danborrada eta urteroko barazki, fruta, lore eta gazta lehiaketa ere ez da falta izango, eta hainbat berritasun ere izango dira aurten.

Ohiko ekitaldiez gain, hainbat berritasunekin datoz San Martinak; besteak beste, Baserriko Oilaskoen Jaia, San Pedro parrokiako organoan grabatutako diskoaren aurkezpena, nagusien danborradan BKEren 50. urteurrenaren gaineko karroza eta Euskadi Gaztea irratiko Joseina Etxeberrria DJarekin disko festa.

BARAZKI, FRUTA, GAZTA ETA LORE MOZTUEN LEHIAKETA

San Martin jaietan ekitaldi esanguratsurik bada hori zapatu goizeko barazki, fruta, gazta eta lore moztuen lehiaketa da. 10:00etan hasiko da, eta, ohi bezala, Bergara eta inguruko baserrietako produktuak ikusi eta erosteko aukera izango da San Martin plazan jarriko dituzten postuetan.

Horrekin batera, Bergarako odolosteen dastatzea izango da 12:30etik aurrera, San Martin plazan. Dastatzea Jon Leturia, Luis Maria Rezola eta Pello Urtzelai harakinek antolatuko dute, Udalaren laguntzarekin, baita odolostek eman ere.

Azokarekin bat eginez, Baserriko Oilaskoen VI. Jaia ere ospatuko da zapatuan. Luma Gorri elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuko du, eta 10:00etatik 15:00ak bitartean, Eusko Labeldun oilaskoak ikusi eta dastatzeko aukera izango da, Munibe plazan. Horrekin batera, 12:00etan, Luma Gorri elkarteak Koldo Lasa sukaldaria Baserriko Oilaskoaren lagun izendatuko du Munibe plazan.

OKELA, LEHIATZEKO ETA AFALTZEKO

Zapatuak ekarriko duen beste ekitaldietako bat Okela Gisatua-



Zapatuan, 13:30ean, banatuko dituzte barazki, fruta, lore eta gazta lehiaketako sariak.

MIGEL ARREGI /LUMA GORRI ELKARTEKO EKOIZLEA, 'IRUDIXO' BASERRIKOA

"Luma Gorriko oilaskoak kalitate handikoak dira"

Zergatik sortu zenuen Luma Gorri?

Bizitza osoan hazi izan ditut oilaskoak. Lehen, tabernetarako hazten genituen. Guk eramaten genien eta haiek lumatu eta prestatzen zituzten ezkontzetarako. Gero, lumatzeari utzi zioten, eta ni hasi nintzen lumatzen. Hauek duela 40 urteko kontuak dira. Garai hartan, osasun aldetik ez zegoen kontrol handirik, baina duela 15

urte, kontrola areagotzen hasi zen, eta etxean lumatutako oilaskoak saltzea debekatu zuten.

Orduan, hiltegiatara eramaten hasi nintzen, baina pribatuak zirenez, nahi zutenean bakarrik lumatzen zituzten. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzara eta Bergarako Nekazaritza Ganberara jo nuen, eta talde bat sortzeko gomendatu zidaten. Horrela, poliki-poliki taldea osatu genuen,



eta Mari Jose Muruaren laguntzarekin labela egiteko bideari ekin genion, eta 93an eskuratu. Hala ere, sortu zen Luma Gorri. Gero, hiltegia ere egin

genuen, Zerainen, eta, gaur egun, 20tik gora lagunek dihardute han lanean, eta 60 baserriar inguru oilaskoak hazten. Zein ezaugarri ditu Luma Gorri oilaskoak?

Adina, elikadura, arraza eta saporea. Gure oilaskoek hamabi aste eta erdi izaten dute. Elikadurari dagokionez, oso kontrol zorrotza daukagu, guztia naturala da. Estatu osoan guk baka-

rrik betetzen ditugu Europako arauak labeladun oilaskoen kasuan. Zenbat oilasko hazten dituzu?

Ehun m²-ko nabe bakoitzeko 1.100 baka-rik haz daitezke; nik bi ditut. Eta, horrez gain, hegaztiko bi m² zelai behar dira. Nik, aldiko, 2.000 oilasko hazten ditut, eta urtean hiru hazkuntza-aldi izaten dira. Oso produktu garestia da, baina kalitate handikoa.

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma

Pintura zerbitzu osoa Mokatak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - mokatak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

INGELES

2002-2003 matrikula zabalik

- Klaseak goizez, eguerdiz eta arratsaldez
- Haurrak, gazteak eta helduak
- Azterketa ofizialetarako prestakuntza
- Enpresak: ingeles tekniko eta komertziala
- Orduetegi bereziak: dendariak, erreleboak eta etxeoandreak



School of English

INFORMAZIOA:
Ibargarai 31, barruko plaza.
Tel. eta faxa 943 76 03 53.
Astelehenetik eguakitzera
10:00-12:30 eta 16:00-19:00.
CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO ESAMINETARAKO
DEBA-DURANGALDEA ES438 KOMITEKO KIDE

Pintura eta marrazki eskolak

Edurne Eraña

Arratsaldez eta zapatu goizetan
HASIERAKO MAILA
943 76 40 14

ren Debagoieneko III. Lehiaketa da. Gipuzkoako Harakin eta Txarkuteroen Elkartek antolatu du, Udalaren laguntzarekin. Aurten, arratsalde izango da lehiaketa, 17:00etan, hain zuzen, San Martin plazan, eta, Jon Leturia harakinak azaldu duenez, zazpi lagunek eman dute izena.

Okelarekin jarraituz, 21:30ean, okela afaria izango da Seminarioan Giokelaren babesarekin. Horrez gainera, afariaren ondoren, Arantza eta Panchok emanaldia egingo dute. Okela afarirako txartelak salgai daude Jon Leturiaren, Luis Maria Rezolaren eta Pello Urtzelaireren harategietan eta kultura etxean, eta egunean bertan ere salgai izango dira odoloste dastatzean eta afari sarrean.

UMEEN ETA NAGUSIEN DANBORRADAK

Bi astean barrena hainbat entsegu egin ondoren, domekan, 22:30ean abiatuko da nagusien danborrada. Zortzi taldek hartuko dute parte: Sustar-berri, Zuloa, Urdinak, San Joxepe, Aritzeta, Xamatx, Artatse eta Lasai Toki. Seminarioko jolastokitik irtengo dira, eta herriko kale nagusiengan barrena ibili ondoren San Martin plazara iritsiko dira. Besteak beste, aurtengo berritasuna karroza izango da, Bergarako Kirol Elkartearen 50. urteurrenaren oroimenezko karroza, hain justu ere.

Astelehenean, berri, umeen danborrada izango da. 19:00etan abiatuko da Seminarioko jolaslekutik eta 150etik gora umek hartuko dute parte. Herrian barrena ibilbidea eginez San Martin plazara iritsiko dira.

ERREILENO ETA TOSTOIEKOFRADIA

Erreileno eta Tostoiakofradia ere egun handia ospatuko du San Martin jaien barruan; domekan, hain justu ere. 09:30ean, beste herri batzuetatik etorriko diren kofradiei ongietorria egingo die Udal Pilotalekuan. Horren ostean, martxa egingo dute zeremoniako jantziekin Udal Pilotalekutik Moja Klaratarren komenturaino. Han meza izango da, Alai-Taldeak abestuta. Gero, herri desfilea izango da, eta 12:15ean, kofradiako III. kapituluak egingo dute Udaleko osoko bilkuren aretoan.

TXOSNA BATZORDEAK ERE BADU SAN MARTIN EGITARAUA

Txosna batzordeak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu San



Astelehenean, 19:00etan, hasiko da umeen danborrada, eta 150etik gora umek hartuko dute parte.

Martin jaietarako. Egubakoitzean, kontzertua egingo dute Buenavistako Jauko barik taldeak, Las perras del infierno donostiarrek eta Compadres Muertos Mexikoko taldeak, 23:00etan, gaztetxean.

Zapatuan, 12:00etan, gazte poteoa izango da Pol-Pol tabernatik abiatuta, eta 15:00etan, gazte bazkaria izango da Munibe plazako txosnan. Txartelak salgai daude Pol-Polen, Arranoan eta gaztetxean. Prezioa bost euro izango da. 23:00etan, beste kontzertu bat izango da, eta Arrasateko Juke Box eta Bergarako Cool Panic taldeek hartuko dute parte. Cool Panic taldeak, gainera, diskoa aurkeztuko du.

Domekan jarraitu egingo du Txosna batzordeak antolatutako egitarauak. 17:30etik 19:30era, Txapa Irratiak zuzeneko emisioa egingo du Txosna batzordeak Munibe plazan jaietarako jarriko duen txosnatik. Gero, 19:30ean, kale antzerkia izango da, Munibe plazan, Interruptus taldearen eskutik. Eta ekitaldiekin amaitzeko, 23:00etan, kontzertua egingo da gaztetxean. Batetik, Ttak Donostiako ska taldea izango da, eta gero, rock-and-roll eta hard-core gaua antolatuko dute.

San Martin jaietako egitaraua

EGUBAKOITZA, irailak 13

19:00: San Pedro elizako organoan Esteban Elizondok interpretatu eta grabatutako diskoaren aurkezpena udaletxeko areto nagusian.

19:30: Bikoteen Dantza Askatuko XVIII. Txapelketa, Moises Azpiauren oroimenez.

ZAPATUA, irailak 14

10:00: Barazki, fruta, gazta eta lore moztuen lehiaketa, San Martin plazan.

Luma Gorri Eusko Labeldun oilaskoen erakusketa eta dastatzea, Munibe plazan.

11:00: Jarduneko trikitilari taldea irtengo da herriko kaleak alaitzera.

Ordu berean XII. San Martin Plater Tiroketa, antzinako aurrekargadun armekin, Ugarrizako merenderoan.

12:30: Bergarako odolosten dastatzea, San Martin plazan.

17:00: Kukubiltxo taldeak antzeztutako *Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen* kale antzerkia umeendako, Munibe plazan.

Ordu berean, Okela Gisatuaren Debagoieneko III. Lehiaketa, San Martin plazan.

18:30: Bonba japoniarrak, San Martin plazan.

19:00: Bergarako Erraldoi, Kiliki eta Buruhandien konpartsaren kalejira,

Udal Txistulari Bandak eta dultzainero taldeak lagunduta.

20:00-21:00: Basajaun taldearekin dantzaldia, San Martin plazan.

20:00-21:00: Basajaun taldearekin dantzaldia, San Martin plazan.

21:30: Okela afaria, Giokelaren babesarekin. Arantza eta Panchoren emanaldia.

23:00: Basajaun taldearen dantzaldiak jarraitu egingo du, San Martin plazan.

DOMEKA, irailak 15

10:30: Erreileno eta Tostoiakofradiako kapituluak.

• **09:30:** Kofradeei ongietorria, Udal Pilotalekuan.

• **10:45:** Martxa zeremoniako jantziekin Udal Pilotalekutik Monja Klaratarren komenturaino, Udal Txistulari Bandak lagunduta.

• **11:00:** Meza, Alai-Taldeak abestuta.

• **11:45:** Herri desfilea, San Martin plazaraino, Udal Txistulari Bandak lagunduta.

• **12:15:** Kofradiako kapituluak, Udaletxeko areto nagusian.

19:00: Maimur taldearen *Paris-Babia* kale antzerkia, barrenkaletik San Martin plazara.

22:30: Nagusien danborradaren irteera, Udal Musika Bandak lagunduta.

Seminarioko patiotik abiatu eta herrian

barrena San Martin plazaraino ibilaldia egingo du.

Gero, Disko Festa Euskadi Gaztearen jaialdi ikuskizuna Joseina Etxeberria DJarekin, San Martin plazan.

ASTELEHENA, irailak 16

08:30: Diana, Udal Txistulari Bandarekin.

09:00: Sokamuturra herriko kaleetan barrena.

11:00: Meza nagusia, San Pedro elizan.

11:15: Udal Musika Bandaren kalejira.

12:30: Udal Musika Bandaren kontzertua, San Martin plazan.

19:00: Bergara Hiria amateur mailako pilota txapelketako finalaren errepikapena, Udal Pilotalekuan.

• 22 urtez azpikoetan Lasa eta Zubieta Olaetxearen eta Iruretaren kontra arituko dira.

• Senior mailan, Huizik eta Gutierrezek Sorarrainen eta Baezen kontra jokatuko dute.

19:00: Umeen danborrada, Musika Eskola Bandak lagunduta, Seminarioko patiotik abiatu eta San Martin plazaraino.

20:30-21:30: Dantzaldia, Gaubela taldearekin, San Martin plazan.

22:00: Suzko erruberak, Agorrosinen, Pirotecnia Zazagozanaren eskutik.

22:30-01:00: Dantzaldiaren jarraipena, Gaubela taldearekin, San Martin plazan.


L Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz

L Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**

L Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A



REALAK ATHLETICI IRABAZI

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Matxiategiko koadrila honetako Realzaleek eta Athleticzaleek elkarren aurkako futbol partidua jokatu zuten zapatuan. Realzaleak nagusitu ziren, 8-1. Ondorioz, Athleticen jarraitzaileek ordaindu behar izan zuten afari aurreko poteoa. Hori bai, Athleticetako Realen kontura ederto afaldu zuten, aurreko denboraldian Athletic Realaren aurretik sailkatu zelako ligan. Txuri-urdinen bolada txarra behingoz bukatzeko itzaropentsu dira realzaleak aurten.

ASTIGARRAGAN EUSKARA LANTZEN

Jarduneko Antxintxika programan ari diren gaztetxoek Astigarragako Santiago aterpetxean lau eguneko egonaldia egin zuten aurreko astean, martitzenetik egubakoitzera, hain zuzen ere. 7 urtetik 11 urte bitarteko hamaika gaztetxo egon dira Astigarragan eta begirale lanetan Amaia Epelde, Lorea Zurutuza, Amaia Ruiz de Urbina eta Nekane Gabilondo aritu dira. Antxintxikak ikasleen euskara maila hobetzeko helburua du eta, abuztuko oporren bueltan, Jardunek egonaldiak antolatuta izan ditu azkenaldian, gaztetxoak 24 orduz euskaraz jarduteko, ikasturtea hastear dago eta...



ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK



Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3
943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4
943 76 37 53



BERGARARRAK MUNDUAN

ELISABET BERGARA

36 URTE / ARTXIBOZAINA / OIONEN (ARABAN) BIZI DA

“Herri bizia da Oion, eta primeran hartu gaitu hemengo jendeak”

EDU MENDIBIL

Urtebete darama Elisabet Bergarak familiarekin Oionen bizi izaten. Aurretik, sei urte eman zituen Logroñon. Hark azaltzen digunez, “bi seme-alaba daukagu, Nerea eta Anton, eta, Nerea ikastolan hastear zegoenez, iaz Oionen etxebizitza erostea erabaki genuen. Eta oso gustura gaude. Asko gustatzen zaigu hemengo bizimodua, herri oso lasaia delako. 2.400 biztanle inguruko herria da, denok eza gutzen dugu elkar. Primeran hartu gaitu Oioneko jendeak, ez daukagu inolako kezarik. Azken boladan jende gazte asko etortzen ari da hona bizi izatera, etxebizitza asko erakitzen ari direlako, eta hori ere eskertzen da. Herri bizia da”.

Elisabetek Historia ikasketak egin zituen. Galiziako

Xuntaren beka bati esker sei hilabetez jardun zuen han lanean eta bueltan, 1994an, Bergarako Udal Artxibategian aritu zen. Sasoi hartan, *Inventario del Fondo del Real Seminario de Bergara* liburua argitaratu zuen, Udalaren laguntzarekin. 1995a ezker

“Asko gustatzen zaigu hemengo bizimodua, herri oso lasaia delako Oion”

Biasteri-Arabako Errioxako eskualdean dabil artxibozain lanetan: “Lapuebla de Labarca eta Oion izan ezik, eskualdeko beste 11 udaletarako egiten ditut artxibozain lanak. Oso herri txikiak dira hemengo eskualdekoak, eta gustuko lana dut. Senarrak, berriz, Agñoncillon egiten du lan, Logroñotik oso gertu. Lanetik aparte, aisialdian mendira joatea gustatzen zaigu, baina bi umerekin, gero eta zailagoa”.

Ahal duen bakoitzean Bergarara etortzen ahalegintzen da Elisabet: “Familia eta lagunak sumatzen ditu faltan, eta sarritan joaten gara, Bergarara edo Donostiara, ahizparen etxera. Azken aldiz abuztuaren ginen Bergaran, baina oso jende gutxi zegoen. San Martiñetan joango gara, beharbada. Hala ere, hemen ere mahats-bilketa hastear dago eta oso giro polita egoten da”.



MINGAINARITIRAKA



Jose Mari Elortza

PERTXA ELKARTEKUA

Bederatzi urtekin hasi zan Jose Mari (56 urte) San Martiñetako tanborradan parte hartzen, Umore Onakin. Azken urtiotan Pertxarekin urten dau, eta aurten be ez dau hutsik egingo.

Zenbat entsaio egitten ditzuzue?

Hillabete lehenago hasten gara, baiñe bizpahiru entsaio nahiko die, aldaketarik ez dago-eta.

Martxarrik polittena?

Or-Konponekua.

Tanborradak hobiak ei zien lehen.

Parte hartze haundixagua zeguan eta neskek be urtetzen zebein oin dala urte batzuk.

San Martiñetako gauzarik onena?

Kale girua eta sokamuturra.

Pazkuak ala San Martiñak?

San Martiñetan hobeto pasatzen dot, ambientia hobia da, neure ustez.

Jaixak, egunez ala gabez?

Egunez, gabez gutxi ibiltzen naiz, urtetan aurrera goiaz-eta.

Juergazalia zara?

Noizian behin bakarrik ibiltzen naiz.

Sukaldari ona zara?

Nahiko ona.

Janari eta edari bana.

Ardo beltza eta legatza saltsan.

Ze moduz abuztuko oporrak?

Ondo, Cadiz aldian ibilli gara.

Denpora librian ze egitten dozu?

Perretxikuak batzia, ehizan egittia eta futbola gustatzen jat. Ibiltzia be bai.

Inguruko mendi bat?

Aizorrotz.

Kutso berrirako zeure buruari agindutako gauza bat?

Pintatzen hasteko gogua daukat... Baiña jubilatzen naizenean izan biharko!

Loterixia tokau ezker, ze?

Biaje on batzuk egingo nittuzke andriakin, mundua ikusi.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Jesus Martín

Errusia / 1992ko abuztua

Aspalditik neukan herrialde komunista bat eza gutzeko gogo. Berlingo Harresia jausi berri zegoela-eta, lagun batek eta biok Moskura joatea pentsatu genuen. Europan zehar trenean bidaiatzeko *Interrail* txartela atera genuen eta, Errusiara bidean, Frantzia, Alemania eta Polonia zeharkatu genituen. Errusiara sartzea ez zitzaigun batere erraza gertatu. Sasoi hartan, abentura modukoa zen norberaren kontu Moskuraino joatea, eta Polonia eta Errusia arteko mugan ziren militar errusiarrekin komeria dezentte izan genuen. Azkenean, eskuta ziguten dirua ordaindu eta aurrera egin ahal izan genuen. Muga ondoko tren geltokian kubatar batekin elkartu ginen eta hark lagundu zigun tren txartela lortzen, sekulako nahaspila zegoen-eta han. Sei dolar besterik ez genuen ordaindu Moskuraino 1.400 kilometro inguruko bidaia egiteko, ohe-bagoian, gainera.



“Abentura modukoa izan zen gure kabuz Errusiara joatea”

Moskura iritsi, eta hango unibertsitatean hartu genuen lo egiteko tokia. Mugan gertatu bezala, kubatar eta perutar asko topatu genituen Moskun eta gauzak asko erraztu zizkiguten, hizkuntzaren erruz errusiarrekin elkar ulertzeko arazoak genituelako. Moskun aste-bete eman genuen. Munduko hiribururik handienetakoa da (9 milioi biztanle dauka), eta hiribide zabalak, metroa eta Plaza Gorria asko gustatu zitzaizkigun. Metroa museo modukoa da, dotorea benetan. Pobrezia ere ikusi genuen, eta, dolar estra batzuk ateratzeko, jendeak denetik eskaintzen zuen. Militarizatutako gizartea zela nabaria zen, baina, aldi berean, nahiko gaizki antolatuta zegoela iruditu zitzaidan. Hala ere, Errusiako ikuspegi mugatua hartu genuen, egun gutxi egon ginelako eta errusiarrekin hartu-eman txikia izan genuelako.

“Kubatar eta perutar asko topatu genituen Moskun”

EDU MENDIBIL



Irudian, Moskuko San Basilio eliza.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




San Pedro 21 Ibergarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

PINTURA ETA MARRAZKIA
Mari Paz Alustiza

IRAILAREN 18AN IKASTARO HASIERA

Izena emateko:
943 76 17 32
(arratsaldeko 07:00etatik aurrera)



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

BERGARA KIROL ELKARTEKO 50. URTEURRENA

Agorrosin jendez gainezka egon zen Realak eta Bordeleko Girondins arteko partiduan

Eguraldia lagun, 2.000 ikusle inguru izan ziren Agorrosinen eta Bergara KEk 6.600 euro inguru jaso zituen. Girondinsek 0-1 irabazi zion Realari

EDU MENDIBIL

Erabat arrakastatsua izan zen Realak eta Girondinsek egubakoitzean jokatuako partidua. Sarrera bikaina izan zen Agorrosinen eta berdegunean ikuskizun polita izan zen, Realak galdu zuen arren.

Raynal Denoueix taldeko entrenatzaile denetik, Realak lehenbiziko partidua galdu zuen Bergaran, nahiz eta egubakoitzean lagunarteko partidua izan. Izan ere, Realeko entrenatzaileak aurreneboraldian jokatzeko aukera gehiegirik izan ez dutenak zelairatu zituen. Westerveld, Rekarte, Jauregi, Schürer, Arantzabal, Aranburu edota De Pedro aulkian izan ziren. Bergarako zalegoa Agustin Arantzabal ikusteko gogoz geratu zen, Denoueixek ez baitzuen atera Realeko kapitaina, beroketa ariketak egiten ibili zen arren. Girondins taldean Savio brasildarra izan genuen jokalaririk onena eta



EDU MENDIBIL

Fermin Agirrek egin zuen ohorezko sarea omendutako beterenen izenean.

berak egindako jokaldi baten ondorioz Darchevillek egin zuen partiduko gol bakarra, 81. minutuan. Agorrosinen bildutako zaleek partidarekin gozatu zuten, jokaldi politik izan ziren-eta.

Begarako zuzendaritzakoak

oso pozik zeuden jasotako erantzunarekin. 2.000 ikusle inguru izan ziren Agorrosinen eta 660.000 euro inguru batu ziren. Partiduaren ostean Realeko jokalariek Lasai-Tokik eskaintako luncheon izan ziren.



ENKO AZKARATE

Arantzabalek ez zuen jokaterik izan bere jaioterrian eta aulkian izan zen.

ATLETISMOKO MAHAI-INGURUA

50. urteurreneko ospakizunekin jarraituz, egubakoitzean, hilaren 20an, atletismoari buruzko mahai-ingurua izango da Zuloa elkartearen, 19:00etan. Enrique San Nicolas atletismo entrenatzaile

ohiak elkartearen omenaldia jasoko du bertan. Mahai-inguruaren ostean Zuloa elkartearen bertan egingo den afarira joan nahi dutenak Aitor Eraña edo Jose Mari Martínez de San Vicenterekin jar daitezke harremanetan.

Nesken futbol taldeak eta gazte taldeak liga hasiko dute zapatuan, Bergaran

E.M.

Bergara KEko nesken taldeak eta gazte taldeak etxean jokatu dute aste bukaeran, eta denboraldiari hasiera emango diote. Zapatu arratsaldean bi partidu jokatu dira Ipintzan eta Agorrosinen.

Nesken taldean entrenatzaile aldaketa dugu nobedaderik aipagarriena, zortzi urtez taldeko entrenatzaile izan den Bittor Agirrebarrenak taldea utzi baitzuen ekainean. Taldeari dagokionez, Nagore Rico aretxabaletarra fitxaketa berria dugu eta Mireia Mendizabal eta Olatz Montealegre gazteak erregional taldean izango dira aurten. Aurreko denboraldian 6. postuan sailkatu zen Bergara. Zapatuan Elgoibarren aurka hasiko dute liga Ipintzan, 18:15ean. Hiru multzotan banatuta 35 talde izango dira lehian.



E.M.

Nesken futbol taldeak Elgoibarren aurka jokatu du zapatu arratsaldean, Ipintzan.

GAZTEAK, ZARAMAGAREN AURKA

Bestalde, aurten euskal ligan arituko den gazte taldeak Zaramaga hartuko du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Fernando eta Javi

Oregi anaiek entrenatzen duten taldeak ohorezko liga irabazi zuen aurreko denboraldian eta mailaz igo zen. Aurtengo helburua mailari eustea izango da.

Nesken taldea

ATEZAINAK

Uxue Larrañaga
Mireia Mendizabal

ATZELARIAK

Miren Berraondo
Goreti Elorza
Lisbert Iñarra
Olatz Montealegre
Idoia Igartua
Olatz Larrañaga

ERDILARIAK

Jasone Larrañaga
Nagore Rico
Oihana Iñurrategi
Estibxu Lobato
Silvia Valor
Ainara Laskurain
Maialen Alkorta

AURRELARIAK

Amaia Osa
Maider Urbina
Uxue Amasorrain
Miriam Godoy
Haize Bolinaga

Entrenatzaileak: Iñigo Ramírez,
Uxue Lazkano eta Igor Larrañaga

ARETO FUTBOLA

Txapelketako ordezkarien bilera martitzenean

Labegarrietako Areto Futbol Txapelketa hilaren 28an jarriko da abian. Parte hartzeko interesa dutenek astelehenera arte izango dute izena emateko epea. Talde bakoitzak 162 euro ordaindu beharko ditu. Datorren martitzenean, hilaren 17an, ordezkarien batzarra izango da kultura etxean, 18:30ean.

MENDIA

Pol-Polekin mendi irteera Elizondora hilaren 22an

Pol-Pol mendizale taldeak hilaren 22an Urkiagara eta Elizondora joateko egun oso txangoa antolatuko du. Irteera, 07:00etan, frontoitik. Txarrelak, Pol-Pol tabernan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Euskara "txinoa" bada zuretzat


...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,
txirrinduila, dulai...



UDAL
EUSKALTEGIAK
...

Ni txirrinduan
nabil.



HABEren dirulaguntzaz

UDAL
EUSKALTEGIAK



- Eskaintza: Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak, EGA eta EGAtik gorakoa. Egokitutako taldeak: guraso, merkataria, enpresa... MULTIMEDIA gela.
- Erritmoak: Eskarien arabera. Galde ezazu!
- Bulego Ordutegia: 8:30 - 13:00 eta 14:30 - 18:30.
- Matrikulatzeko epea: Irailaren 2tik 20ra.
- 16 urteik gorakoendako.
- Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi 13, BERGARA. Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

**20 urte zuekin, egunez egun, euskaraz.
Baita San Martinetan ere! Ondo ibili!**

TAFE

Eskulan ikastaroak

Ana Orgazen ardurapean

Zeramika

Enkuadernazioa

Eskulanak

Irakaslea: Ana Orgaz

Martitzen eta eguaztenetan

18:00-20:00

Izen ematea: Ardatza

Tailaketa

Irakaslea: Ascensio Esnaola

Martitzen eta eguaztenetan

18:00-20:00

Izen ematea: Ardatza



Gantxilloa

Bainikak

Kurutze puntua

Irakaslea: Tere Agirrezabal

Eguaztenetan

15:00-17:00 eta 18:00-20:00

Izen ematea: Igartza mertzeria

Bolilloa-Bainikak

Irakaslea: Idoia Ibañez

Eguaztenetan

15:00-17:00 eta 18:00-20:00


Izen ematea: Igartza mertzeria

Ikastaro guztiak Koldo Eleizalde z-an emango dira

Informazioa:

943 76 35 99

(Eguaztenetan 10:00-13:00 eta 16:00-20:00)



Diskoak San Pedro parrokiako Stoltz-Frères organoan jotako hamaika obra jasotzen ditu.

MONIKA BELASTEGI

Esteban Elizondok interpretatuta dago, eta gaur aurkeztuko dute

San Pedroko organoan jotako hamaika obra CDan

MONIKA BELASTEGI

Gaur, 'Stoltz-Frères Bergarako San Pedro elizako organoa' diskoa aurkeztuko dute, 19:00etan, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Euskal autoreen hamaika lan jasotzen ditu diskoak.

Luis Urteaga, Eduardo Torres, Jose M^a Beobide, Francisco Madina, Jesus Guridi, eta Jose M^a Gonzalez Bastida bergararraren lanak jasotzen ditu diskoak. Lanen interpretea Esteban Elizondo

Iriarte da, Donostiako Kontserbatorioko Organo katedraduna, eta guztiak San Pedro elizako organoan jota daude; 1889. urteko Stoltz Frères organo erromantikoa, hain justu ere.

Duela urtebete grabatu zuten diskoa, eta grabazio lan eta banaketaz —hemen eta nazioartean— Aeolus diskoetxe alemana arduratuko da. 2.000 disko kaleratu dituzte eta 300 Udalaren esku geratu dira. Aurkezpenen salgai jarriko dituzte 12 eurotan, eta aurrerantzean kultura etxean egongo dira salgai 15 eurogatik.

Aurkezpen ekitaldian Gallas-tegi alkatea, Esteban Elizondo organo jotzailea, Christoph Martin Fromenn diskoetxe zuzendaria eta Jon Bagues Eresbileko zuzendaria izango dira. Han, San Pedroko organoaren gaineko hitzaldia egingo du Elizondok, eta CDko obren pasarteak entzuteko aukera ere egongo da.

Jose M^a Gonzalez Bastida musikari bergararraren lanak ere jasotzen ditu diskoak, hiru hain justu: *Largo*, *Interludio* eta *Elegia*. Lehen aldia da musikariaren lanak grabatzen direla.



Dantza Sueltoiko XVIII. Txapelketa

San Martin jaien barruan, Moises Azpiazuren oroimenez jokatzeko den Bikoteendako Dantza Sueltoiko XVIII. Txapelketa izango da gaur, 19:00etan, Udal Pilotalekuan.

Hamabost bikotek hartuko dute parte txapelketan. Horietatik lau Bergarakoak dira; gainerakoak Gipuzkoako hainbat herritatik etorriko dira, eta bikote bat, Bizkaitik. Horrez gain, Moises Azpiazu dantza taldeko gaztetxoek erakustaldia egingo dute Dantza Sueltoiko Txapelketan./M.B.

Asteburuan kale antzerkia Maimur eta Kukubiltxorekin

MONIKA BELASTEGI

San Martin jaietako egitarauaren barruan, bi antzerki talderen lanaz gozatzeko aukera izango da: batetik, Kukubiltxoren 'Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen'; bestetik, Maimur Teatroaren 'Paris-Babia'.

Zapatuan, hilak 14, hurbilduko da Kukubiltxo taldea herrira. 17:00etan, San Martin plazan, *Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen* umeendako lana egingo du. Lan horretarako, Mikel Zarate idazle bizkaitarraren *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuiko *Ekidazuko astasendia* izeneko alegia hartu du inspirazio iturritzat Kukubiltxok, eta oinarri horrekin sortu dute *Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen*.

Ekidazuarrek, asto arrantzari-kantariak, *Abereta*-ko bazter guztiak argitzen dituzte euren musika doinuekin. Baina, egun batean, *Piztiaga&Co.* multinazionalak merkataritzagune handi bat eraikiko du han, eta herri-

ko bizimodua goitik behera aldatuko da.

Kukubiltxoren ikuskizun musikal honetan, alegiaren mingotsa eta umorearen gozoa batera datoz. Eta horixe da antzerki taldeak 25. urteurrena ospatzeko egindako lan berria.

PARIS-BABIA

Domekan, 19:00etan, beste antzerki lan bat ikusteko aukera izango da. Maimur Teatroak *Paris-Babia* lana eskainiko du Barrenkalen hasi eta San Martin plazara bitartean.

Antoñoto, *Kontxi*, *Natasha*, *Manuel* eta *Karanba* errealityaren muga dauden hiru emakumezko eta bi gizon dira. Zintzoak, sutsuak eta apasionatuak; emozioak azken muturrera eramaten dituzte beti. Izakera horrek, era bereziki barregarrian jokatzera bultzatzen ditu, eta euren buruaren gainean ironizatzen prest daude beti. *Paris-Babia* bost pertsonaia horien ikuspegi berezitik sortutako mundua da, *Ongizatearen Erresuma*.



Asto arrantzari-kantariak ekarriko ditu herrira Kukubiltxo antzerki taldeak.

KUKUBILTZO

Jose Reyes leioarrak 1. saria Ageriko Pintura Lehiaketan

MONIKA BELASTEGI

Joan den domekan jokaturako 24. Ageriko Pintura Sarietan Jose Reyes leioarrak jaso zuen lehen saria, 23 urtetik gorakoen sailkapenean. Adin horretatik beherakoetan, berriz, Unai Azkarate bergararrak.

Hogeita bat lagunek hartu zuten parte domeka goizean izandako 24. Ageriko Pintura Lehiaketan. Partehartzaileen artean bergarar ugari izan zen, hamar, hain justu ere. Gainerakoak, Bizkaia eta, batez ere, Gipuzkoako hainbat herritatik etorri ziren, eta, tartean, Zaragozatik etorritako gizonzko bat ere izan zen.

Lehiaketan bi sailkapen izan ziren: 23 urtetik gorako parte hartzaileendako bata eta 23 urtetik beherakoendako bestea.

Lehen sailkapenean, Jose Reyes leioarrak jaso zuen lehen saria, Zubieta kaletik goiko trenbidetako igoera irudikatzen duen lan figuratiboarekin. Bigarrena, Angel Cibeda zaragozarrak; hirugarrena, Anton Arrillaga bergararrak, eta herriko lan onenaren saria, Juan Gonzalezek jaso zuen.

23 urtetik beherakoetan, Unai Azkarate bergararrak jaso zuen lehen saria eta gainerakoak, hutsik geratu ziren epaimahaiak hala erabakita. Epaimahai hauek osatu zuten: Luis Laskurain, Juanjo Altuna, Oihana Gari-tano eta Mari Paz Alustiza.

LANAK IKUSGAI BEART ELKARTEAN
Lehiaketan parte hartutako lanak ikusgai daude Beart elkartearen (Bolu 49), asteleheneetik egubakoitzera, 18:30etik 21:00etara, eta zapatu eta jaiegunetan ere bai.

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA



Danborradak,
suak, musika,
kale antzerkia...
Ondo pasatu
San Martinak!



BERGARAKO UDALA

IRAILAREN 14an BERGARAKO SAN MARTIN FERIAN

HARAGI AFARI HERRIKOIA

Seminario Zaharreko patioan, 21:00etan

Txartelak salgai

L.M. REZOLA Harategia
Matxiategi, 7

JON LETURIA Harategia
Pedro deuna, 24

URCELAY Harategia
Ibargarai, 16



Zer jan, hura izan!



Benetako Jacuzzi-a

Eraman plazerra zure etxera



gelatu s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51

Abuztura arteko balorazio positiboa egin dute

AINTZANE IRIZAR

Behin ikasturtea amaituta, eta ikasturte berriari ekitera goazen honetan, Bergarako Gazte Informazio Guneako arduradunek urtarriletik abuztura arteko hainbat datu jaso dituzte.

Urteko lehendabiziko zortzi hilabetetan 432 informazio eskakizun jaso ditu guztira Bergarako

Gazte Informazio Guneak, Mainer Sedano arduradunak jakitera eman digunez.

Kontsulta horietako gehienak otsailean eta maiatzean jaso ditu; gutxien, abuztuan. Dena dela, kontuan hartu behar dugu bi astetan itxita egon dela bulegoa abuztuan. Besteak beste, lan eskaintzen, ikasketen, diru laguntzen, udalekuen edota turismoaren gaineko informazioa eskatu dute gazteek.

Bulegoan bertan jaso dituzten kontsultei, Errotalde eta Irizar

jauregiatiko paneletan astero jartzen dituzten lan eskaintza, beka eta bestelako informazioen kontsultak, asteroko lan eskaintzenak eta udaleku eta oporraldietarako izen emateak gehitu behar dizkiegu.

TXARTEL UGARI ATERA DITUZTE

Guztira, 204 txartel atera dituzte gazteendako bulegoan, iaz baino 58 gehiago. Aterpekide txartelei dagokienean, 124 txartel atera dituzte guztira. Bestalde, 80 txar-

tel internacional ere atera dituzte bergararrek Gazte Informazio Gunean.

Azkenik, gogoratu behar dugu irailetik aurrera, ohiko ordutegiari heldu diola Gazte Informazio Guneak. Eguen eta egubakoitzetan, arratsalde egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara. hain zuzen ere. Zapatuetan, berriz, goizez: 09:30etik 13:30era. Mainer Sedano izango da aurtan ere bulegoko ardura-duna.

BERRIGARA Egubakoitz / 2002ko irailaren 13a

E.TXO!


KANPOAN IKASTEN DUTENENDAKO BEKAK
Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ikasten dutenendako Mugikortasun Bekak emango ditu Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da. Horren gainean informazio zabalagoa topatuko duzue www.mecd.es helbidean edo telefono zenbakira deituta: 91 701 85 00.

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



Ordua	Astelehena	Martitzena	Eguaztana	Eguena	Egubakoitza
07:30	Stepa Ipurmasallak	Mantenimendua	Aerobica Ipurmasallak Abdominalak	Mantenimendua	Stepa Abdominalak Luzaketak
08:15	Maria Isabel Stepa Ipurmasallak	Maria Isabel Mantenimendua	Maria Isabel Aerobica Ipurmasallak Abdominalak	Maria Isabel Mantenimendua	Maria Isabel Stepa Abdominalak Luzaketak
09:00	Maria Isabel Aerobica Ipurmasallak Abdominalak Luzaketak Gema	Maria Isabel Mantenimendua	Maria Isabel Body-gim lif-training	Maria Isabel Mantenimendua	Maria Isabel Aerobica Stepa Abdominalak Luzaketak Gema
10:00	Jubilatuak Amala	Luis Spining m. ertaina	Luis-Gema Jubilatuak Gema	Luis Spining m. ertaina	Jubilatuak Marisabel
15:00	Stepa Aerobica Gema	Mantenimendua	Body-gim lif-training	Mantenimendua	Stepa Aerobica Gema
17:00	Stepa Aerobica Gema	Luis [Oraindik zehazteke]	Zirkuito aerobikoa	Luis [Oraindik zehazteke]	Aerobica Ipurmasallak Abdominalak Gema
18:00	Umeendako eta gazteendako karatea	Zirkuito aerobikoa	Umeendako eta gazteendako karatea	Stepa Ipurmasallak Abdominalak Gema	Umeendako eta gazteendako karatea Luis-Gema
19:00	Stepa Ipurmasallak Abdominalak Gema	Luis Spining (bizikleta, areto barruan)	Aerobica Tonifikazioa	Luis Spining (bizikleta, areto barruan)	Stepa Ipurmasallak Abdominalak Gema
20:00	Helduendako karatea	Luis Helduendako karatea	Gema Helduendako karatea	Luis Helduendako karatea	Gema Helduendako karatea
20:30	Stepa Ipurmasallak Gema	Luis Spining m. ertaina	Gema Body-gim lif-training	Luis Spining m. ertaina	Stepa Aerobica Gerrirako abdominalak Gema
21:00	Gema	Luis Spining m. ertaina	Gema Spining m. ertaina	Luis Spining m. ertaina	Gema Spining m. ertaina

MAKINA ETA PISU ARETOA: 07:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 22:00etara.
Astelehen, eguazten eta egubakoitzetan orduetegi jarraia 07:00etatik 22:00etara.
JIU JITSU, BABES PERTSONALA: zapatuetan 10:00etan.



Giartzu

Gimnasioa
Boni Laskurain 3
Telefona: 943 76 35 71



BERGARA
Laura Cid
Irailaren 13an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Lorea Madinabeitia
Irailaren 9an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Gorka Irazola
Irailaren 2an 5 urte.
Zorionak! Aitona-
amonak eta etxeokak.



BERGARA
Xabat Irazola
Irailaren 2an 5 urte.
Zorionak! Aitona-
amonak eta etxeokak.



ELGETA
**Uzuri
Untzetabarrenetxea**
Irailaren 14an 8 urte.
Zorionak! Eskolakoak.



ELGETA
Asier Errarte
Irailaren 19an 8 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Unai Gorostidi
Irailaren 13an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Ismene Gorostidi
Irailaren 13an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Aitor Olañeta
Irailaren 13an 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Olatz.



BERGARA
Beñat Vicente
Irailaren 16an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Amaia Alzelai
Irailaren 14an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Oihana.



BERGARA
Beñat Pelicano
Irailaren 13an 3 urte.
Zorionak! Yolanda eta
lehengusina Belen.



BERGARA
Paula Cordero
Irailaren 13an 5 urte.
Zorionak! Aitona-
amonak eta etxeokak.



BERGARA
Garazi Beristain
Irailaren 12an 4 urte.
Urte askotarako!
Haritz eta Unai.



BERGARA
Alazne Laskurain
Irailaren 17an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



ELGETA
Alex Cristobal
Abuztuaren 2an 27 urte.
Urte askotarako!
Miren eta Amaia.



ELGETA
Leire Cristobal
Abuztuaren 29an 30
urte. Urte askotarako!
Miren eta Amaia.



BERGARA
Joldi
Irailaren 14an 7 urte.
Urte askotarako!
Sendikoak.

Zorionak!


Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
asteleheneran 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua


Ingelesa 2002-03



Rene Waterhouse

**Irailean,
ikasturte hasiera
Eman izena!**

943 76 59 08



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

*Mujika
gozotegia*



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak | Era guztietako moldurak
Sarrailak | Apalak
Heldulekuak | Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Donostiako ze elizatan jarri dute aurtengo udan Lorenzo Askasibarrek egindako brontzezko irudi hau?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
Udalak, urritik aurrera, herriko jauregi bat erabiltzeko baimena eman dio Jarduni. Zein?</p> <p>A/ Irizar jauregia.
B/ Errekalde jauregia.
C/ Arrizuri jauregia.</p> | <p>2.
Zein urtekoa da San Pedro parrokiako organo erromantikoa?</p> <p>A/ 1874.
B/ 1902.
C/ 1889.</p> | <p>3.
Nork sartu zuen Reala eta Bordeleko Girondins arteko partiduko gol bakarra?</p> <p>A/ De Paulak.
B/ Saviok.
C/ Darchevillek.</p> |
|---|--|---|



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ESPE RUIZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Espe! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrean, Mariaren Lagundia. Eskuman, Unzeta eta Loiola etxea / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ondosol ekilore-olioa
Litro bateko botila

0,86 €
143 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

PINTORE BERGARARRAK GAUR

Mari Paz Alustiza

EDU MENDIBIL

Bergarar askoren pintura irakaslea izandakoa da Mari Paz Alustiza (Bergara, 1945), duela 25 urte inguru hasi zen-eta eskolak ematen. Txikitatik dauka margotzeko zaletasuna: "Simon Arrietarekin eta On Moises Egurenekin jardun nuen gaztetxoan nintzela, eta ondoren Bilbon ikasi nuen. Hala ere, banekien pinturatik bizi izatea ia ezinezkoa izango zela eta Delineatzai-le ikasketak egin nituen, aitaren gomendioari jarraituta". Normalean zapatueta eta domeketan pintatzen du, etxean daukan estudio txiki baten. Aste barruan, berriz, eskolak ematen ditu: "Umeei erakustea erraza da, benetan artistak dira, eta nik asko ikasten dut haiengandik. Bestalde, nire ikasle izandako askok pintatzen jarraitzen dutela ikusteak asko pozten nau".

Nagusiki pintura figuratiboa lantzen du, olioak gehienetan, eta impresionistak ditu gustuko. Pintura lehiaketetan asko ikasi duela diosku, eta urtero joaten ei da Mutrikerako edo Azpeitira, lehiatzera. Epe luzera, denborarekin gertatuta, bakarkako erakusketa bat egiteko ilusioa dauka.

"Umeei erakustea erraza da, artistak dira, eta asko ikasten dut haiengandik"



MONIKA BELASTEGI



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

BERGARAN BULEGO BERRIA



BERGARA Ibagarai 3. 943 76 97 97
LEGAZPI Santikutz 8. 943 73 05 25

10 URTEKO ESPERIENTZIA!

IRURAK MARGOAK DISEINUA, S.L.

- | | |
|----------------------|-----------------|
| Era guztietako lanak | Paper pintatuak |
| Moketa eta sintasola | Harea zorrotada |
| Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua |

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 13a / 125. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Bi futbol talde bakarrik izango ditugu aurten

AINTZANE IRIZAR

Laster hasiko da futbol denboraldia, eta horixe izango da aurtengo denboraldiko berri garrantzitsuena, bi futbol talde bakarrik izango ditugula herrian; izan ere, kadete mailako talderik ez dute atera, ezta nesken talderik ere, jendea falta zutela eta.

Gazteen taldea eta erregionaleko bigarren mailakoa bakarrik izango ditugu herrian hasiera doan futbol denboraldi berrian. Iaz lau talde aritu ziren Gipuzkoako futbol ligan. Aurten, baina, taldea osatzeko jendea falta zitzaiela eta, ez da egongo nesken eta kadeteen talderik.

ERREGIONALEK, ENTRENATZAILE BERRIA

Erregionaleko bigarren mailako taldeak entrenatzaile berria dauka. Abuztuaren 26an hasi zituzten entrenamenduak David López de Abetxuko bergararrarekin, eta bere laguntzaile Igor Larrea-rekin. Orain arte izan duten entrenatzailea, Andoni Azkargorta, Bergarako erregional mailako taldea entrenatzen hasi da.

Oraingoan, 22 jokalarik osatzen dute taldea, Davidek adierazi digunez; honako hauek, hain zuzen ere: Jon Arregi (atezaina), Iker Irizar, Ieltxu Mendizabal, Unai Gezalaga, Gurutz Zabaló, Samuel Cuevas, Eneko Iturbe, Ibai Azkarate, Jabi Peñalba, Jon Iturbe, Josu Segurola, Luis Herzog, Jon Aranguren, Aitor Gabi-



Aurten ez dugu nesken talderik izango, ezta kadeteen talderik ere.

londo, Eneko Zabaleta eta Jokin Beristain. Gorka Iglesias, Gotzon Zabalo, Jon Pagaldai, Raúl Coma eta Jon Alberdi bergararrak, berriz, lehen aldiz jokatu dute talde erregionalean.

GAZTEEN TALDEAN ERE HAINBAT ALDAKETA

Entrenatzaile berria izango dute gazteek ere; oraingoan, Andres Arbulu hasi da lan horretan.

Honako hauek osatzen dute taldea: Ekaitz Olalde, Josu Asen-

sio, Mikel Idiakez, Jon Ander Castro, Luis Franco, Ortz Urriategi, Egoitz Mendia, Xiker Iparagirre, Aritz Elorza, Aritz Sardi, Kepa Igarza, Ibon Urzelai, Endika Iturbe, Iñaki Arbulu, Aitor Godoy, Jon Gurutz Godoy, Odei Aranguren, Ander Cabrera, Dani García eta Aitor Elgero bergararrak, hain zuzen ere.

Irailaren 22ko astebukaeran hasiko dute denboraldia, bai erregionalek eta baita gazteek ere.



Gerbasiori aipamen berezia

Donostiako Aste Nagusian ospatutako txistularien jaialdian, abuztuaren 11n, aipamen berezia egin zieten Euskal Herriko hainbat txistulari, tartean, baita Gerbasio Legorbururi ere. Duela hilabete batzuk Euskal Herriko Txistulari Elkarteak Urduñan egindako batzar orokorrean Gerbasiori urrezko domina ematea erabaki zuten. Hori dela eta, aipamen berezia egin zioten Donostian. Domina emateko ekitaldia, berriz, udaberrian egingo dute Antzuolan bertan./A.I.

LABUR

Erretiratuen elkarteak irteera antolatu du Biasterira datorren irailaren 19rako

09:00etan irtengo dira herriko plazatik eta Biasterira abiatuko dira. Han upelategi bat bisitatu ondoren, Biasteri herria bera bisitatzeko aukera ere izango dute. Marixa-Rioja jatetxean bazkalduko dute. Irteera horretara joan nahi dutenek 23 euro ordaindu behar dute eta hilaren 16an eta 17an dute izena emateko aukera, 18:00etatik 19:00etara, erretiratuen egoitzan.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

AITZ-GARBI



Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

ELKARRIZKETA

ANASTASI GABILONDO/HERRI IKASTETXEKO IRAKASLE IZANDAKO

“Umeeekiko harremana oso polita eta aberasgarria izan da niretako”

Erretiratu berri da Anastasi. Joan den astelehenean, umeak eskolan hasten ziren egunean, hain justu, joan ginen Anastasi-ekin berba egitera. Horrenbeste urte irakasle izan ondoren, egun berezia zen harendako.

Zenbat urte egin dituzu irakasle?

Lehenengo ikastolan hasi nintzen eta gero, herri eskola eta ikastola bateratu zirenean ere irakasle jarraitu nuen; guztira, hogeita bost urte egin ditut irakasle.

Hortaz, zilarrezko ezteiekin batera erretiratu zara. Biak ospatzeko moduan zaude.

Bada, bai; biak batera suertatu dira.

Zela gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?

Esan bezala, ni ikastolako irakasle hasi nintzen; froga batzuk egin zituzten, aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduten. Gero, ikastola eta herri eskola bateratu egin ziren, eta han jarraitu nuen. Hasiara hartako oroitzapen onak ditut; eta baita gainerako urtetakoak ere. Niretako oso aberasgarria da irakaskuntza. Gustuko lana izan duzu, hortaz.

Bai; umeeekiko harremana oso polita eta aberasgarria da niretako. Badirudi umeeek ez dakitela ezer, jende askok horrela pentsatzen du, baina ez hori ez da zuzena. Umeeek gauza asko dakite, gauza mordo bat eskaintzen dizute. Adibidez, beragana iristea zaila egiten zaizun ume bat baldin badaukazu, pentsatu arazi egiten dizu horrek; buruari buelta asko ematen dizkiozu, beragana iristeko bide berriak bilatu, lankideekin komentatu... Ume bakoitza mundu bat da, eta gainera, oso aberatsa. Horrenbeste urte umeeekin lanean, dagoeneko dena jakingo duzu umeen gainean.




AINTZANE IRIZAR

“Hezkuntzaren esparruan beti dago zerbait ikasteko, etengabe ari zara ikasten”

Ezta pentsatu ere; irakaskuntzan, edo hezkuntza munduan, beti dago zerbait ikasteko, etengabe ikasten ari zara. Zuretako hain gustukoa izan den lana lagatzen duzun honetan, umeen falta nabaritutako duzu, ezta?

“Orain, erretiratuta, orain arte egiterik izan ez ditudan gustuko gauzak egingo ditut”

Bada, bai; baina bueno, etxean badaukagu neska txiki bat, nire biloba, eta gustura egongo naiz harekin ere. Eta bestetik, gustuko ditudan eta orain arte egiterik izan ez ditudan gauzak ere egingo ditut; senarra ere erretiratuta dago eta bidaiatzea gustatzen zaigu.



Lorategian kalteak egin dituzte

Aurreko asteko eguen gauean, plazako lorategiko hainbat lore eta landare apurtu zituzten ezezagun batzuek. Herritar batek eman zigun horren berri egubakoitz goizean; goizean etxetik irten eta lorategiaren inguru guztiak apurtutako lorez beteta topatu zituen: “Ez dut ulertzen zergatik egiten dituzten horrelakoak; zer traba egiten diete, bada, lorek?”, zioen herritar horrek. Bestetik, Herri Ikastetxeko jolastokia ere poliespaneaz zikin-zikin eginda azaldu zen egun hartan bertan./A.I.

LABUR

Arrolak mendi bizikleta irteera antolatu du Leitzarango bailarara irailaren 22rako

Egun osorako irteera antolatu du Arrolak irailaren 22rako. Leitzaranoera joango dira, eta trenbide zaharretik mendi bizikletaz egingo dute ibilaldia. Martitzenean, 19:00etatik 20:00etara, eman beharko da izena Arrola elkartearen egoitzan, Kalebarrenean.

Oraindik ez dira hasi azoka frontoi aurrean egiten, baina irailean bertan hasiko dira

Aurreko asteko KONTUOLAn azoka frontoi aurrean egiten hasiko zirela esan genizuen arren, oraindik ez dute aldaketa hori egingo. Saltzaileen kokapena erabakitzeak irizpideak zehazteke dituzte oraindik, baina irailean bertan aldatuko dute tokiz azoka.

Gaztelugain elkarteak irailaren 21ean ospatuko du hogeita bosgarren urtemuga

Martxoan bete ziren 25 urte Gaztelugain elkartearen sortu zutenetik. Urteurren hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte irailaren 21erako. Eguerdian salda eta txorizoa banatuko diete elkarrekoek Gaztelugainera joaten diren herritar guztiei. Horren ondoren, bazkaria izango dute bazkideek, baita erromeria ere. Azkenik, 25 urte hauetako hainbat argazki jarriko dituzte ikusgai.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegori 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Juan Cruz
ARGAZKIAK
EOS 3000
28-80 zooma
OPARIA
Uztailean, abuztuan eta irailean errebelatutako erroiloen artean zozketatuko da
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko irailaren 13a / 109. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Sagardotegi askotako kupelak bihar, zapatua, Sagardo Egunean

OXEL EROSTARBE

Gaztetxeak antolatuta, VII. Sagardo Eguna izango da bihar. Aurten, berritasun gisa, kalean jarriko dituzten kupelatan sagardotegi askotako sagardoa egongo da. Patata-tortilla lehiaketa ere izango da, eta Intxorta elkarteak lagunduko die gaztetxeokoi.

Sagardo Eguneko ekitaldi garrantzitsuena 18:30ean hasiko da. Herriko elkarte eta koadrila gehienak plazan batuko dira, patata-tortilla lehiaketan. Dagoeneko 10 taldek eman dute izena eta gaur eta bihar artean gehiago izatea espero dute antolatzaileek. Berandu dabilzanek Haizean eta gaztetxean eman dezakete izena.

Ordubetea patata-tortilla guztiak amaitu beharko dituzte. Tortilla guztiak sei arrautza izan beharko dituzte, gutxienez. Gainerako osagaiak sukaldariaren esku geratuko dira. 19:30ean, tortilla guztiak jasoko dituzte, eta epaileek denak dastatu bezain laster jakingo dugu aurtengo lehiaketaren irabazleak nortzuk diren. Tortilla onenaren sariaz gainera, tortilla originalena egi-



Aurreko urteetan moduan, herriko elkarte eta koadrila gehienak plazan elkartuko dira patata-tortillak egiteko.

ten dutenei eta azken postuan geratzen direnei ere emango dizkiete sariak. Bestalde, arratsalde osoan sagardoa edateko aukera egongo da.

GAUEAN, AFARIA ETA KONTZERTUA

21:30ean, afaria izango da plazan. Txartelak nahi dituztenek gaztetxean galde dezakete ea tokirik dagoen. Afalostean, Potato eta

Doctor Deslai taldeen kontzertua izango da gaztetxean. Sagardoa edan eta reggae musika entzuteko aukera aparta izango dugu aurten ere elgetarrok.

HERRITARREN HITZA / Jabier Arantzeta • Irakaslia

Pasau zeinkena (ederra bildurra!)

GOIBEKOKALEn biharri gabizenok jakin dogu Garzon epailliak bere andria kartzelan sartu dabela. Hemen esango dotsuegu zelan izan diran gauzak:

Munduan ibiltzia asko gustatzen jakun jentia izanda, udan, Madrilen izan gara GOIBEKOKALEkuok zooko animalixak eta Madrillen ugarixak diran gabeko beste animalixa klase batzuk ikusten.

Gabeko ikustaldixetan zebilela, gure periodistarik ederrenak, izenik ez dogu emongo intimitatea gordetzeko eta inbidixarik izan ez dain, lartxo edan zeban gaba batian.

Ziharo meiorauta zeuala, andra zoragarri bat arrimau jakon. Bat meiorauta dauenian danak ikusten dittu zoragarri eta goxogoxo jardunian hasi ziran bixak, meiorautakouan jardunian be dexente hobeto egitten da eta gaba, danok uste dozuen moduan amaittu zan.

Hurrengo goizian, gure periodistiak hobeto ikusi zeban nun zeuan eta nor zeukan albu. Pentsau



“Atsuori jolaserako jarri zanian, jo eta fuego hasi zan gure mutilla”

kin atsuorrek. Oinguan be ez zoorik eta ez Eskorialik ez zeban ikusi gure mutillak.

zeban, zeukan edaderako atso hura kurioso zeuala; hola, armozua emon ostian hori atsuori barrero jolaserako jarri zanian, jo eta fuego hasi zan gure mutilla, Elgetan izena leku onian jartzen. Eta hain leku onian laga zeban Elgetan izena, ze hurrengo hiru egunetan be hantxe segitu zeban horrekin atsuorrek. Oinguan be ez zoorik eta ez Eskorialik ez zeban ikusi gure mutillak.

Iparraldeko mutillan indar basatixa ezagutu ostian, horrek atsuorrek gehixau nahi. Gure bikotiak Elorrixoko Ferixa Nagusittarako egin zeban zitia.

Hortxe harrapatu zittuan Don Baltasarrek Elorrixoko hotelian, bere andria eta gure periodistia. Kartzelara bisitia egin ostian, bixak libre dagoz eta guk honen barri izan dogu. Esan biharrekua da, normala dan moduan, Diario Vascok, eta bestiek lehenengo-lehenengotik zekittela honen barri. Izan be, Garzon jaunak bere andria sekuestrauta zeuala uste zeban, baiña demokraziaren izenian ixil-ixilik geratu dira.

LABUR

Eibarko Bandaren emanaldia domeka eguerdian

Kultura batzordeak antolatuta, Eibarko Bandaren bisita izango dugu domekan. Emanaldia plazan egingo dute, eguerdiko ordu batean. Lehenago, Salvador kalean behe-ra kalejira egingo dute.

Besteak beste, *Camino de Rosas, Agua, azucarillos y aguardiente, The best of Abba, Cancions de mare* eta *Eslabiar martxa* joko dituzte Elgetan domekan.

Euria egiten badu, Espalioan izango da Eibarko Bandaren emanaldia.

Organo kontzertua izango da bihar iluntzean elizan

Bihar, zapatua, 19:00etatik aurrera, organo kontzertua izango da elizan. Esteban Elizondo Uriarte organo jotzaileak emango du kontzertua. D. Zipoliren, N. Morettiren, Diego de Alvaradoren eta beste zenbait musikariren piezak entzun ahal izango ditugu. Esteban Elizondo Uriarte organo jotzailea nahiko ezaguna da. Donostiako Kontserbatorioko organo irakasle izandakoa da eta mundu osoan eman izan ditu organo kontzertuak.

Martitzenean hasiko da aerobik ikastaroa

Aerobikeko lehenengo taldeak datorren astean ekingo dio aurtengo ikasturteari. Martitzenean eta egunetan batuko dira kiroldegian, 20:00etatik 21:00etara. Aerobikean parte hartu nahi dutenek 15 euroko kuota ordaindu beharko dute. Interesa dutenek Kirol Zerbitzuetan eman beharko dute izena.

Kiroletako teknikari Oskar Carrascalek adierazi digunez, Kirol Zerbitzuek antolatutako gainerako zerbitzuak urrian hasiko dira.

IRAKURLIAREN TXOKUA

LORONTZIAK DIRELA ETA

Salbador kalean lorontzi batzuek jarri zituzten zenbait etxetako balkoiak kamioien kolpeetatik babesteko. Edo hori da behintzat niri heldutako informazioa. Ez dakidana da, noren pentsamenduz eta aginduz egin ziren gauzak.

Gutziz aldrebesa iruditu arren, kamioiek balkoiak ez jotzeko neurri zuzena zirudien. Beste aldeko balkoiak berriz, zer? Hauen gasaren hodiak zer?

Eta halako batean, non agertzen diren lorontziok atzera gainera igota! Zergatik? Oraingoan nork agindu du hau egiteko? Zer konpontzen da lorontziak dauden lekuan egonda? Konpondu ezer ere ez, eta berriz ere gauzak aldrebesatu: bi pertsona apenas kabitzen dira eta aulki batean dioan ezindua, ikusi egin behar! Beharbada, asko kostatzen zen lorontziak hasierako lekura bueltatzea, eta gehiago agian, egin zena gaizki egin zegoela onartzea. Gauzak bi bider pentsatu eta behin egin behar dira eta ez alderantziz.

IBAN RETOLAZA

ASTEKO GAIA

Abuztuan %85ean egon da beteta Egoetxeaga auzoko Barrenengua baserri turismoa

O.E.

Abuztuan ireki zuten Agustin Beretxinagak eta Maite Sadak Egoetxeaga auzoko Barrenengua baserri turismoa. Ibilbide berria ederto hasi dute, abuztuan bisitari ugari izan dituzte-eta. Oraingoan, behintzat, gustura daude emandako pausoarekin.

Bizimodu berrira ohitzen dihardute Barrenenguan. Urte eta erdi inguru baserri turismoa gertatzen ibili ondoren, uztailaren bukaeran zabaldu zizkieten ateak bisitariari.

Hasieran semeak ei ziren etxean kanpotarrik nahi ez zutenak. Baserria egokitzen joan diren neurrian eta abuztu honetan bisitariak izan ondoren, ez dute gauza bera pentsatzen. Abuztuan bisitari ugari izan dituzte Barrenenguan, eta semeak ondo moldatu direla esan digu Maitek.

Barrenengoko baserri turismoan, gehienez, 18 lagunendako lekua dute. Hara inguratzen direnek izango dituzten beharretan ere ederto pentsatu dute. Beheko solairuan egongela handia dute, baita eguneko otorduak egiteko jangela ere. Kontuan izan behar



Beheko solairuan jangela, egongela eta sukaldea ditu baserri turismoak.

dugu hantxe lo egingo dutenek otorduak han bertan egiteko aukera izango dutela. Sukaldea ere beheko solairuan dago. Bigarren eta hirugarren solairuetan logelak daude. Gutzira, sei loge-

la dituzte, bi ohekoak guztiak ere, bakoitza bere komunarekin. Hirugarren solairu horretan terraza aterata dute teilatuan. Baserri turismoak elbarriendako behar diren arau guztiak betetzen ditu.

Interneten ere laster egongo da Barrenengo baserri turismoa, www.nekatur.net webgunearen barruan agertuko da-eta. Posta elektronikoa erabiliz, www.barrenengua@terra.com, eta 943 76 82 21 telefonora deituz egin daitezke erreserbak. Bi lagunendako gela 40 euro kostatzen da.

ABUZTUAN, ITALIARRAK NAGUSI

Abuztuan izan duten bisitariekin oso pozik daude Barrenengoko ugazabak. Izan ere, baserri turismoa beteta eduki dute % 85ean.

Italiarrak izan dira nagusi aurtengo udan Barrenenguan. Maitek aipatu digunez, oso jende jatorra ei da. Murtziarrak, valentziarrak, kalaluniarrak eta iparraldekoak ere izan dira. Batez ere, jende gaztea etorri da, gehienak seme-alabekin. Guztiak nahiko harreman ona izan dute. Etorritako bisitariak esan dietenez, Euskal Herrian zehar turismoa egiteko leku egokian kokatuta dago Elgeta eta berriro ere etorriko dira.

Negurako beste era bateko bisitariak erakarri nahi dituzte Barrenengora, astean barrena enpresetako langileak eta asteburuetan bisitariak. GOIBEKOKALEkoon partetik, zorte on!

ESKOLA


28 eskola-umek eman dute izena egunero jantokian bazkaltzeko

Astelehenean hasi zen herriko umeendako 2002-2003 ikasturtea. Gutzira, 78 ikasle izango ditu Eskolak. Haiei eskolak ematen zortzi andereño izango dira.

Astelehenekoa lehen eskola eguna izan zen bi eta hiru urteko 13 neska-mutikorendako. Jon Arozenak, Nicol Barok, Leire Estévezek, Ana Mansok, Paula Palaciosek eta Ainhoa Zeziagak bi urtekoen taldea osatzen dute. Unai Andrések, Gari Arozenak, Ainara Belamendiak, Irune Errastik, Jabier Romerok, Etor Zubiaurrek eta Andoni Zubiaurrek, aldiz, hiru urtekoena. Edur- ne Arregi izango da andereñoa.

JANTOKIA NOIZ ZABALDU ZAIN

Ikasturte honetan eskolak izango duen berritasun nagusia jantokia da. Hasiera baten datorren astelehenean hasi behar zen jantokiko zerbitzua. Lerro hauek idaztean, jantokia ez zegoen gutziz osatuta. Altzariak eta beste zenbait material ekarri barik zeuden. Hori dela eta, seguruenik, umeek ezin izango dute bertan bazkaldu, ez, behintzat, astele-



Eskolako lehen egunean ez da batere erraza izaten gurasoei agur esatea.

henean. Dagoeneko 28 umeek emanda zuten izena egunero jantokian bazkaltzeko. Eta zenbait gurasok nahiko burukomin izango dute umeak non utzi pentsa-

zuten. Auzolagun arduratuko da egunero bazkariak emateaz.

Jantokiaren arazoa amaituta zegoela zirudienean, Ordezkaritzak ez ditu altzariak bidali.



Intxorta inguruko ibilbidea

Debagoieneko herrietan egin daitezkeen ibilbideen gaineko informazio panelak jarri ditu Mankomunitateak. Elgetan Intxortaren inguruko ibilbidea aukeratu dute. Jarri duten panelko informazioa, ordea, ez da ondo ulertzen. Panela kokatu duten lekua kontuan hartuta maparen norabidea ez da zuzena eta zenbait leku-izen ere okerrak dira./O.E.

ERRETRATUZAHARRA

Simoni omenaldia egin ziotenekoa

Duela hilabete batzuk hil zitzaigun Simon Artolazabal musikari eta organo jotzaile antzuolarra. 1970. urte inguruan omenaldia egin nahi izan zion herriak, eta herri bazkaria egin zuten. Argazki honetan, bazkarian sukaldari eta zerbitzari lanetan ibili ziren herriko neska gazte mordoarekin batera ikus dezakegu Simon, Kalebarrendik frontoirako bidean.

Ezkerretik eskumara, eserita: Mariasun Gezalaga, ezezaguna, Tomasa Arbulu, Socorrito Jauregi, Ines Garitano, Itziar Manzidor, Begoña Lete, Mari Karmen Larrañaga, Begoña Zabalo, Maria Luisa Mendizabal, Ana Mari Toledo eta Pilar Iparragirre.

Atzerago, makurtuta: Rosarito Larrañaga, Arantzazu Lete, Madalena Egaña eta Juli Kortabarria.

Zutik: Rosarito Jauregi, Mari Karmen Iparragirre, Marilurdes Iparragirre, Mariasun Ena, Rosarito Igarza, Begoña Aiausti, Mari Karmen Iturbe, Simon Artolazabal, Maria



Luisa Txintxurreta, Bonifacia Azkarate, Pilar Lizarralde, Maria Jesus Irizar, Dorleta Atorrasagasti, ezezaguna, Mendizabal, Mari Jose Etxeberria eta Virginia Dupui.

Atzeko ilaran: Rosarito Azkarate,

Paco Legorburu, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Mari Karmen Irizar, Gabina Jauregi, Arantxa Alberdi, Arantxa Aranburu, ezezaguna, Lurdes Etxeberria, Milagros Larrañaga, Begoña Egaña, Mila Larrea, Elorza,

ezezaguna, Itziar Zabalo, Maria Jesus Arbulu, Pantxika Arin eta Pilar Aranguren.

Argazkia: Begoña Lete

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Olaran etxea dotore laga zuten

Urtetan lagata egon ostean, Lantegi Eskolako neska-mutilak fin aritu ziren Olaran etxea eraberritzeko lanetan. Otsailerako prest zegoen guztia, eta hil horretan bertan inauguratu zuten.

Lehenengo solairua Udalarena da, eta, besteak beste, erakusketak egiteko erabiltzen dute. Gainerako solairuak Mankomunitateak erabiliko ditu.



1999

Urtetan egon zen lagata Olaran etxea. Aurreko aldeko harrizko hesia, esaterako, desagertuta dagoela ikus dezakegu.



2002

Olaran etxearen jatorrizko egiturari eta itxurari eutsi diote, baina guztiz eraberritu dute. Etxearen inguruak ere aldatuta daude.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzizko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67




San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak,
ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84



Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

